

ESTRATEGIA BIZKAIA GAZTEAK

2030



Aurkezpena
2022ko
martxoa

SARRERA

BIZKAIA GAZTEAK 2030

Zer da Bizkaia Gazteak 2030?

- Bizkaia Gazteak 2030 proiektua **erreferentzia-esparrua** da Bizkaiko gazte-politiketarako.
- **Esku-hartzeak definitzeko, bultzatzeko eta koordinatzeko iparrorratza** da.
- **Politika guztiek gazteen beharrei eta eskaerei erantzuten dietela** ziurtatzen du.
- **Gazteen eskubideak** bermatzen ditu, haien autonomia indibiduala eta komunitatean duten parte-hartzea areagotzen ditu.
- Gazteei **beren garapen pertsonalean** eta helduarora igarotzen lagunduko dieten **tresnak** ematen dizkie.

TESTUINGURUA

BIZKAIA GAZTEAK 2030

Zein iturritatik elikatzen da Bizkaia Gazteak 2030?

Erreferentziazko nazioarteko, autonomia-erkidegoko eta lurraldeko plangintzak

- Nazio Batuen **2030 Agenda** eta haren 17 GJH.
- Gazteriaren **Europako Estrategia** 2019-2027.
- 2030erako Erronka Demografikorako **Euskal Estrategia**.
- **Gazteen Euskal Legea**.
- 2019-2023 Aginte Plana **Bizkaia Egiten**.

Bizkaiko gazteen egoera

Gazteen egoera monitorizatzeko eta gazteen lehentasunak identifikatzeko tresnak:

- **Urteko diagnostiko-txostenak**
- **Gazteen Ikusmuga**.

Aurretiazko estrategiaren ebaluazioa

- **Gaztedi Bizkaia 2020**ren ikaskuntzak maila estrategikoan eta operatiboan.



ERRONKAK ETA HELBURUAK


BIZKAIA GAZTEAK 2030

Nola egituratzen da Bizkaia Gazteak 2030?

2 ERRONKA



**1. Erronka
EMANTZIPAZIOA**



**2. Erronka
GIZARTE-
ERAIKUNTZA**

10 HELBURU

EMANTZIPAZIOA

“Gazteei baldintzak, aukerak eta laguntzak ematea beren bizi- eta familia-proiektuak gehiago betetzeko”

PRESTAKUNTZA	Laneratzeko gaitasunak eta trebakuntza eskaintzea.
ENPLEGUA	Gazteentzako kalitatezko enplegua sustatzea, besteren edo norberaren kontura.
ETXEBIZITZA	Gazteen emantzipazioa erraztu eta aurreratzea.
FAMILIA	Familia-unitate berriak era daitezen sustatzea, nahi izanez gero, seme-alabak izateko.

GIZARTE-ERAIKUNTZA

“Euskadiko gizartea bilakatzeko orduan gazteei protagonismoa ematea”

GIZARTERATZEA	Aukera-berdintasuna bermatzea eta gizarte-larrialdiko egoerei aurre egitea.
ANIZTASUNA	Gazteak irekiagoak eta berdinak izan daitezen sustatzea.
OSASUNA ETA ONGIZATEA	Gazteak beren osasuna zaintzera bideratzea.
KULTURA-NORTASUNA	Kulturaren ikuspegitik gazte dinamikoak eta euskaldunak sortzea.
JASANGARRITASUNA	Garapen jasangarrirako gazteen konpromisoa areagotzea.
PARTAIDETZA	Gazteak ahalduntzea beren testuinguru eta gazteentzako politikak hobetzeko.



1. Erronka
EMANTZIPAZIOA

Gazteen emantzipazio-prozesuak aurreratzea.



PRESTAKUNTZA

- **Hezkuntza-adierazleak parametro positiboetan:** eskola-uzte tasak (% 10) eta goi-mailako ikasketenak (% 53).
- **Laneratzeko zailtasunak:** % 25ek ez du aurkitzen ikasketekin bat datorren enplegurik, eta % 9k ez du ez ikasten ez lan egiten.
- **Lan-ildoak:** lanbide-kualifikazioa, eskaera handiko **gaitasunetarako prestakuntza ...**



ENPLEGUA

- **Lan-baldintza konplexuak:** langabezia (% 23), behin-behinekotasuna (% 62), partzialtasuna (% 31) ...
- **Lan-ildoak:** gazteen **kontratazioa eta ekintzailtza** babestea, batez ere trantsizio berdean eta digitalizazioan.



1. Erronka
EMANTZIPAZIOA

Gazteen emantzipazio-prozesuak aurreratzea.



ETXEBIZITZA

- **Etxebizitzaren prezioa** bizitza independenterako oztopo gisa: ordaintzeko ahalegin ekonomikoa batez besteko soldataren >% 50 da.
- **Lan-ildoak: gazteei alokairua eta etxebizitza erostea bultzatzeko** formulak.



FAMILIA

- **Eraldatzen ari den euskal biztanleriaren piramidea:** gero eta seme-alaba gutxiago, amatasun- eta aitatasun-adinarekiko atzerapena, ugalkortasun-tasaren beherakada.
- **Lan-ildoak: jaiotza-tasa sustatzeko zerga-tresnak** aztertzea, familia-eredu desberdinei laguntzea ...



2. Erronka
GIZARTE-
ERAIKUNTZA

Gazteak gizartea eraldatzeko eta eraikitzekeo prozesuaren katalizatzaile bihurtzea.



INKLUSIOA

- **Kalteberatasun-, larrialdi- eta bazterketa-egoera** desberdinetan dauden gazteak, arrazoi ekonomikoengatik, indarkeria mota desberdinengatik ...
- **Lan-ildoak:** Aldundiaren, **boluntarioen, elkarte-sarearen, hirugarren sektorearen** eta abarren arteko lankidetzadynamika



ANIZTASUNA

- **Gazteria irekia eta tolerantzia:** ideologiaren, immigrazioaren eta sexu-aniztasun generikoaren aurkako jarrerak gazteen artean, minimo historikoetan.
- **Erronka garrantzitsua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan:** indarkeria matxistaren, egiturazko desberdintasunen (soldada-arrakala, zainketen arrakala) existentzia aitortzearen aurkako erresistentzia.
- **Lan-ildoak:** **gizarte-eraldaketarako** hezkuntza, **sentsibilizazioa**, tokiko **berdintasun-politikak** ...



2. Erronka
GIZARTE-
ERAIKUNTZA

Gazteak gizartea eraldatzeko eta eraikitzeko prozesuaren katalizatzaile bihurtzea.



**OSASUNA
ETA
ONGIZATEA**

- **Pandemiak gazteengan dituen ondorioak:** eragina osasun mentalean eta jarduera fisikoa eta kirol-jarduera etetean.
- **Lan-ildoak: bizi-ohitura osasungarriak** sustatzea eta **arrisku-jokabideei** heltzea.



**KULTURA-
NORTASUNA**

- **Aldaketa azeleratuak pandemiarekin:** kontsumo eta praktika kultural presentzial etenaren edo online euskarrietara desplazatuaren zati bat.
- **Lan-ildoak: publikoak** biziberritzea, kultura-ekosistema dinamizatzea, sektoreko profesional **gazteentzako aukerak** sortzea, aisialdiko eta **euskarazko** zerbitzuak eta produktuak hobetzea ...



2. Erronka
GIZARTE-
ERAIKUNTZA

Gazteak gizartea eraldatzeko eta eraikitzeko prozesuaren katalizatzaile bihurtzea.



IRAUNKORTASUNA

- Aurrerapausoak **gazteen erantzunkidetasunean**: garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera handitzea (%15 erabiltzen du egunero), kontsumo jasangarriaren indizea hobetzea ...
- **Lan-ildoak**: **motorrik gabeko mugikortasunerako** pizgarriak, ingurumen-hezkuntza, bizi-ohituren eta -estiloen **eraginari buruzko kontzientziazioa** ...



PARTE-HARTZEA

- **Ingurunea hobetzeko zeregin aktiboa** duten gazteak: % 44k elkarteetan parte hartzen dute, % 14k boluntario-lanak egiten dituzte, gai publikoetan parte hartzeko interesa dute ...
- **Lan-ildoak**: **balio** zibikoak, komunitarioak eta solidarioak **bultzatzea, gazteek politikan parte-hartze aktiboa izatea sustatzea** ...

DIMENTSIOAK

BIZKAIA GAZTEAK 2030

Nola funtzionatuko du Bizkaia Gazteak 2030?

- Foru sailekin, tokiko eragileekin (udalak eta eskualdeak) eta gazteekin egiten da lan.
- Eragile bakoitzarekin egiten den lana dimentsio batean islatzen da, bere helburu, egitura eta tresnekin.

ALDERDIA	XEDEA	EGITURAK	TRESNAK
ALDUNDIA (Sailak)	Gazteentzat zeharkako politika kudeatzea.	Sailen arteko gaztediaren batzordea. Sailen arteko batzordearen talde teknikoa.	Erronken eta esku hartzeko ildoen dokumentua. Urteko programazioaren dokumentua. Urteko ebaluazioaren dokumentua.
LURRALDEA (Eskualdeak eta udalerriak)	Gazteentzako politiken lurralde-oreka eta -koordinazioa bermatzea.	Udal Gaztedi. Udal Gaztediren lurralde kontseilua. Udal Gaztediren eskualdeko taldeak.	Gazteen beharrei buruzko txostena. Tokian gazteentzako zerbitzu osoa.
GAZTEAK (Pertsona gazteak)	Gazteentzako politikan gazteen partaidetza sustatzea.	EGKrekin hitzarmena.	Gazte Saregileak. DreamsLab topaketak. Ikerketak.



EBALUAKETA

BIZKAIA GAZTEAK 2030

Nola kontrolatuko da Bizkaia Gazteak 2030en kalitatea?

Etengabeko hobekuntza-prozesua, honako hauek osatua:

- **3 denbora-eskala:** urteko ebaluazioak, tarteko ebaluazioa 2025ean eta amaierako ebaluazioa 2030ean.
- **3 ebaluazio mota:** egikaritzearena (zer egin da?), eraginarena (zer lortu da egindakoarekin?) eta egokitasunarena (zer politika behar dira?).
- **3 ebaluazio-tresna:** tailer parte-hartzaileak, gizarte-ikerketako azterlanak (Gazteen Ikusmuga) eta 16 adierazlek osatutako aginte-koadroa:

ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK		AZKEN DATUA	2025eko ATALASEA
Estrategiaren helburu nuklear eta lehentasuneko erantzuten ditute			
1. ARDATZA EMANTZIPAZIOA	Emantzipazio-tasa	% 32,9 (2020)	% >40 Ehuneko hori jatorrizko etxetik kanpo biziko diren 18-34 urte bitarteko pertsonei dagokie.
	Emantzipatzeko batez besteko adina	30,0 urte (2020)	<29 urte Ehuneko hori gazteak emantzipatuko diren batez besteko adinari dagokio.
2. ARDATZA GIZARTE-ERAIKUNTZA	Gai publikoetan parte hartzeko nahia	% 55,3 (2020)	% >60 Ehuneko hori gai publikoetan gehiago parte hartu nahi duten gazteei dagokie.

GOIBURUKO ADIERAZLEAK

Helburu estrategikoei dagozkie

		AZKEN DATUA	2025eko ATALASEA
1. ARDATZA EMANTZIPAZIOA	Egokitutako enpleguaren tasa	% 75,2 (2020)	%>80 Ehuneko hori beren prestakuntzarekin oso lotuta edo nahiko lotuta dagoen lanpostua izango duten gazteei dagokie.
	Langabezia-tasa	% 23,3 (2020)	%<20 Ehuneko hori langabezian egongo diren gazteei dagokie.
	Etxebizitza ordaintzeko gehiegizko ahalegin ekonomikoa	% 19,3 (2019)	%<17 Ehuneko hori diru-sarreraren % 40 baino gehiago hipoteka edo alokairua ordaintzeko erabili beharko duten gazteei dagokie.
	Amaren batez besteko adina lehen seme-alaba izatean	32,4 2020)	<31 urte Emakumeek lehen umea izaten duten batez besteko adina izango da.
2. ARDATZA GIZARTE-ERAIKUNTZA	Benetako pobrezia-tasa	%6,3 (2020)	%<6 Oinarrizko premiak behar bezala ez betetzeko arriskua duten gazteen ehunekoia izango da.
	Intolerantzia ideologikoa	%28,7 (2020)	%<15 Idela, sinesmen edo balio desberdinak dituzten pertsonekin oso haserre edo nahiko haserre dauden gazteen ehunekoia izango da.
	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	%7,9 (2020)	%<7 Indarkeria matxistagatik salaketaren bat jarri duten emakumeen tasa izango da.
	Sexu bereko pertsonak ezkontzearen aldeko tasa	% 97,8 (2020)	%>98 Bikote mota eta ezkontza mota guztiak aho batez onartuko dira.
	Etorikinak sartzeari uko egitearen tasa	% 0,3 (2020)	%<1 Immigrazioaren ekarpen positiboari buruzko adostasuna egongo da aurrerantzean ere.
	Antsietate- eta depresio-tasa	% 9,9 (2018)	%<10 Aurreko hilabetean depresio- edo antsietate-arazoak izan dituzten gazteen tasa izango da.
	Lagunekin euskara erabiltzen duten gazteen tasa	% 22 (2016)	%>25 Lagunekin lehenetsuz euskaraz edo euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten duten gazteen ehunekoia izango da.
	Kontsumo iraunkorraren indizea	% 40,7 (2021)	%>45 Honako bost jokoera iraunkor hauetatik lau ohiko moduan egiten dituzten gazteen ehunekoia izango da: ontzi gutxiarekin erosten salatzeta, norberaren poltsa eramatea, zaborra bereiztea...
	Boluntarioen tasa	% 11,4 (2021)	%>14 Boluntario-lanak egin ohi dituzten gazteen ehunekoia izango da.